



Andoaingo Udala

Alkatetzaren ebazpena

Andoaingo Udalak Urnieta eta Lasarte-Oriako Udalei eskatu die beraien kirol instalazioen bat erabili ahal izatea Leizaran Eskubaloia Kirol Klubaren talderen batzuen entrenamendurako 2025-26 denboraldian.

Leizaran eskubaloia KK elkarteko zenbait talde Urnieta eta Lasarte-Oriako kirol instalazioak erabiltzen ari dira hainbat egun eta ordutegietan.

Leizaran Eskubaloia KK elkarteak diru-laguntza eskatu zion Udalari Urnietako kiroldegiko kantxako entrenamenduetarako joan-etorrien gastuei aurre egiteko.

Ikusirik Andoaingo Udalak 2026-2028 aldirako DPE-Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuela 2026-05-27ko 2026/1500 alkate-dekretuaren bitartez.

Ikusirik Jarduera Fisikoa eta Kirola lansaileko Teknikariak 2026ko maiatzaren 15ean egindako txostena.

Ikusirik Udal Kontuhartzaileak 2026ko ekainaren 3an egindako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bidez, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa: Onartzea, Andoaingo Udala eta Leizaran eskubaloia KKren artean proposatutako lankidetz hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Leizaran Eskubaloia KK elkarteko hainbat taldek 2025-26 denboraldian Urnieta eta Lasarte-Oriako kirol instalazioetan egindako entrenamenduen garraioak eragindako gastuei aurre egitea.

Dirulaguntza: 7.002,76 €.

Partida: 1.1000.481.342.00.04.2026 (272)

Indarraldia: 2025-2026 denboraldia.

Bigarrena: Hitzarmena sinatu ondoren, Leizaran Eskubaloia KK elkarteari dirulaguntzaren %60a ordaintzea, hau da, 4.201,66 euro.

Hirugarrena: Hartutako erabakia Leizaran Eskubaloia KKri jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkateak sinatuta.

Laugarrena: Akordio honen berri ematea Kontuhartzailatza udal lantsailari

Hala agindu eta sinatu dut, Andoaingo Udalen sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea



Kodea:
2026AAH20004

Andoaingo Udala



EKS | CSV: ESKUf98fdceb-f241-402c-a451-f618ecb194e0

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>